

@@@EDIKTUA, Familia eta Komunitate Politikarako zuzendariarena, H-2011-48-2463-I espedienteari buruzkoa.@@@

María Dolores García García andreak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Familia eta Komunitate Politikarako zuzendariak, ediktu hau eman du:

EDIKTUA

Birritan saiatu arren, ezin izan zaio agiriak aurkezteko eskakizuna berriaz jakinarazi XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX andreaki, berak H-2011-48-2463-I espedientean eman zuen helbidean. Hori horrela, ediktu hau argitaratzen da EHAA, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikulua eta aplikatu beharreko gainerako xedapen konkordanteak betetzeko. Era berean, honako agiri hauek aurkezteko eskakizunaren berri ematen zaio interesdunari:

- XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX semearen zaintza ematen dion ebazpen judizialaren fotokopia konpultsatua.

Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuaren babesean eskatutako diru-laguntza ematea ala ez ebazte aldera, 10 eguneko epea du eskatzaileak, aipatutako agiriak Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzan aurkezteko (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38. artikuluan aurreikusitako edozein modutan. Interesdunari ohartarazten zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 5a.

Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaria,
MARÍA DOLORES GARCÍA GARCÍA.